

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

147/2019 Foru Agindua, ekainaren 6koa, zeinaren bidez inskribatzen baita Arabako Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroan Arratzua-Ubarrundiako udalerriko Zurbao SAU 1 konpentsazio batzarrean egoniko aldaketa, Batzorde Eskuordeko kideak berritzeari buruzkoa

Lehenengoa. Arratzua-Ubarrundiako Udalak, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Oroko-rraan 2018ko abuztuaren 8an sarrera izan zuen idazki baten bidez, alkatearen abuztuaren 3ko 200/2018 Dekretua bidali zuen, inskripzioa egin zedin Arabako Hirigintza Intereseko Elkar-teen Erregistroan. Dekretu horren bidez, aurkeztutzat jotzen da Zurbao SAU-1 sektoreko Konpentsazio Batzarraren lehendakari berria eta Batzorde Eskuordeko kideak izendatu izana.

Bigarrena. 2018ko irailaren 14an, Diputatuen Kontseiluaren 56/2011 Foru Dekretuaren 13.5. artikulua xedatutakoa aplikatuz, zeinaren bidez arautzen baita ALHko Hirigintza Intereseko Elkar-teen Erregistroa, Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuak Arratzua-Ubarrun-diako Udalarari eskatu dio konpon ditzala jasoriko dokumentazioan aurkitutako hutsak, hura azter-tuta ezin daitekeelako ondorioztatu betetzen direnik inskripzioa egiteko eskatutako betekizunak. Laburbiduz, hona hemen hutsak: ez da egiaztatu betetzen denik Konpentsazio Batzarraren estatutu-eta 28. eta 32. artikuluetan ezarritakoa, ez eta Hirigintza Kudeatzeko Arautegiaren 162.3. artikuluan ezarritakoa ere.

Hirugarrena. Arratzua-Ubarrundiako Udalak, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Oroko-rraan 2019ko maiatzaren 20an sarrera izan zuen idazki baten bidez, alkatearen maiatzaren 15eko 109/2019 Dekretua bidali zuen, inskripzioa egin zedin Arabako Hirigintza Intereseko Elkar-teen Erregistroan. Dekretu horren bidez, aurkeztutzat jotzen da Zurbao SAU-1 sekto-reko Konpentsazio Batzarreko Batzorde Eskuordeko kide berriak izendatu izana. Udalak kopia konpultsatu bat erantsi du, Konpentsazio Batzarrak aurkeztutako dokumentazioarena, non besteak beste ageri baita batzar horrek 2019ko apirilaren 25ean eginiko batzar orokorraren 23. bileraren akta. Haren bidez egiaztatzen da goian aipatutako errekerimenduan adierazitako hutsak konpondu direla.

Laugarrena. Herrilan eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren irailaren 4ko 754/2000 Foru Aginduari jarraituz, Arratzua-Ubarrundiako udalerriko planeamenduko arau subsidiario-eta Zurbao SAU-1 sektoreko Konpentsazio Batzarra Arabako Hirigintza Erakunde Laguntzaileen Erregistroan inskribatu zen (egun Arabako Hirigintza Intereseko Elkar-teen Erregistroa da).

ONARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretuak, zeinaren bidez hirigintza kudeatzeko arautegia onetsi baitzen, bere 164. artikuluan xedatzen du ezen, konpentsazio batzarretan gertatzen diren gorabeherak, hala nola zuzendaritza organorako izendapenen al-daketak, jakinaraziko zaizkiola hirigintza entitate laguntzaileen erregistroari, diharduen admi-nistrazioaren bitartez.

Alkatearen maiatzaren 15eko 109/2019 Dekretuaren bidez jasotzen da ezen Arratzua-Uba-rrundiako Udalarari Konpentsazio Batzarraren lehendakariaren 2019ko apirilaren 26ko idazki bat aurkeztu zaiola, eskatuz inskribatu dadila Hirigintza Intereseko Elkar-teen Erregistroan Batzorde Eskuordeko kideen aldaketa eta lehen hautemandako hutsak zuzendu direla adierazten duen dokumentazioa, eta kide berrien izendapena helarazten da.

Bigarrena. Aplikagarria da Diputatuen Kontseiluaren irailaren 20ko 56/2011 Foru Dekretuan aurreikusitakoa (Arabako Lurralde Historikoko Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroa sortu eta arautzen du).

Hirugarrena. Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuak txosten arrazoitua aurkeztu du, eta jakinarazitako aldaketa Erregistroan inskribatzea proposatu du.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Agindua ematea Arabako Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroan inskribatzeko Arratzua-Ubarrundiako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioetako Zurbako SAU-1 sektoreko Konpentsazio Batzarrean izandako aldaketa, zeina baita Batzorde Eskuordeko kideak berritzeari, aurreko guztiak kargutik kentzeari eta hartako lehendakari, idazkari, diruzain eta kide karguetan jardungo duten pertsonen izendapenari buruzkoa.

Batzorde Eskuordea pertsona hauek osatuko dute:

- Konpentsazio Batzarraren lehendakaria: Pedro Gorbea López de Armentia.
- Idazkaria: Alfonso Fernández de Trocóniz Núñez.
- Kideak: Leire Chamorro Díaz de Tejada eta Arratzua-Ubarrundiako Udala, María Blanca Antépara Uribe alkateak ordezkaturak.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2019ko ekainaren 6a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO